

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
66n. ZENBAKIA
BAGILLA
1983



Amorlas



BILBO'KO ATEAK MUNDU GUZTIRA BIDEAK

BIZKAI MINTZ-EDER

EDERTASUNA

Euskalerrri osora begira naiagok. Ain dok ederra... Ezin esan beste gauz bikain jaukazak aurrean... Baiña, lenengo, nor nazan esan bear deuat. Nire izena ta abizena dituk = BIZKAI EUZKO IZKUNTZA:

Pozez beterik esan bear deuat, adiskide: Lur onen altzo zabaléan ikusi, ezagutu ta gozartu ditudan bitxi ta edertasun guztien artean ederrenetarikoa berbeta, izkuntza dok.

Neure burua goratzera ez naiagok, ori ez dok ba egokia, ta gixiago, gizontasunezkoa.

Zera, egia ta ona gauz berbera izatera eltzen dituk. Bizkaiko lurralde ontan be, gizon, meatz, solo, mendi, itxaso, danak alkartu zituan, ta euren artean berbeta bat sortu juen: Bizkaiko izkuntz mamintsua.

* * *

SORPEN - AGIRIA

Ni, beti, atsegiñaz, bizi izan nok lurralde onetan. Emengo jentearen jeiñua, biotza, irriparrea ez dituk edozelakoak. Ondo artua izan nok gizaldien gizaldietan Millak urteren buruan.

Noz jaio nintzan jakin nai al dok?

Euskaldunak sortu ziranean... Euzkotarrak eta ni bat gaituk, mendiak legez zabal, soloaren era giarratsu, baratzen irudira loratsu...

Nire sormenaren jakin-miña oso kezkatua dok jakintsuen artean... lan ta lan jabiltzazak ene jaiotzaren agiri papera billatu nairik, ta iñundik iñora, gaur arte ezin aurkitu.

Ain nok zarra, baiña ez tximurra... ain nok antxiñakoa, baiña

neure alabak lez liraiña, ain garbia... neure kutunen antzera edurra lakua? zuri, argi ta urre.

* * *

BIZI - LEKUA

Nunbaiten bizi bear ta, Aitorren lurraldeetan oiña tinkatu genduan aneika urteak direla. Ezin esan beste.

Mendietan, baso bazterretan, izpaterretan, arkaitz zulo ta lezetan igaroten genduazan gure bizitzko urteak.

Gurē sorrerako lenen aldia, olan, izan zuan: Mendi, zelai ta arkaitzetakoa, baiña, benetan, giarratsua.

Orain lez mizkatuak ez; ezta ain arroak be... Gure jauregia lur berbera zuan, ta gure egoitza ta lo-gelak lur barruetako berezko leza, ondo, apainduak.

* * *

BIOTZ ONEKO LOREA

Euskerak, ain eder dalarik eta ain jakintsu, mendi bitarte orreetan izan ioan bere sorrera maitegarria.

Jente aren barrua eguzkizko arkaitza legez zuan argia, ta erretakako ur saltari ta dizdilariaren antzera garbia... euren barruan eioten zuan bakearen urun zuria.

Olan sortua dok euskera, biotz onetako lorea...

* * *

ARAU JAKINTSUAK

Baiña, alan da guzti be, arrituta naiagok. Gizon areek, nundik nora, jarri ekioezan oiñarri ain jakintsuak, gaur, gizon jakitunak

ikaratzen dituan euzko izkuntz be-rezi oneri...

Nire izatearen edertasuna, aditzaren jakituria ta gaiñerako joskera ta edergallu guztiak, zertatik eta nundik, datozen jakin nai al dok...?

Begiak zabaldu, arnasa, ondo, artu ta euzko izadi gizadira begiratu.

Gure arkaitz gallur, mendi ta arruak sendoak eta argiz orniduak dituk, eguzkiaren inguruan darabilen jira-biran.

Egunez eta gabaz... argiz, euriz, aizez ta edurrez, izadiaren bizia egiten ta indartzen joiak.

* * *

IZADIA ARGITZAILLE

Egunetik egunera, euskaldun ibarrak luzatzen, zabaltzen ta indarbarritzen joiezak.

Lurraren giroa geroago ta ederrago. Gure jente eiztaria, ortxe, asi zuan ederraren aurrean izkuntza sortzen. Zenbat eta arkaitz sendo, zelai orlegi, lur mamin ta itxas ederragoak ikusi, berbea be bikaiñagoa zuan, itz joskera be iñagoa, euskeraren mardultasuna askoz osotuagoa.

Izadiaren izakerak astindu ta arritzen jítuan lurralde ontako giza semien erraiak.

Buruko argitasuna sortu ta biotzeko maitasuna suspertzeko duin zituan, aurrean, eukezen lur edergalluak. Era ortan, mendiko abere gizenek lez, guri, jaio zuan Euskera... Izadiak eta giro onak itz egiten jeutsen, arriak adimena bizkortu ta basoetako iturriak irudimena gardentzen.

PAULIN

ARRANTZALEAK GOGOAN

GURE JANARIAK

Gure arpedunen artean asko dira arrantzaleak eta guztiok daukagu eurakaz zer-ikusia, arraiña janari dogun neurrian.

Baserritarrak eta arrantzaleak dira izan be, gure maiak janariz beteten dauskuezanak eta eurai begira gizarte guztiak izan bear leuke esker onekoak: Itxasoa ta legorra dira janariak emoten dauskuezanak, baiña baserritarren eta arrantzaleen izardia ta arriskuak orretarako bide dirala.

ESKER ONA

Eta zergaitik ete da gizartean irabazbiderik laburrena daukenak alde bi oneik izatea?

Ez ete litzake gauza egokia izango, bearren doguzan gauzak aurrean ipinten dauskuezan ekero, esker onagaitik besterik ez ba'da, eurak ondoen bizi daitezaz gizarte arduratzea?

ARRISKU BARRIAK

Ez da baiña orrelan. Baserritarrak oraindiño bear dan bestean alkartu ez diralako edo, eskubiderik bearrenak eskuratu barik daukaguz.

Arrantzaleak be oraindiño oraintsu, gizartean ondo baztertuak izan dira eta aspalditxuan euren eskubideak obeto zaindu ba'dabez be, azkenengo urteetan arrisku barrien aurrean aurkitzen dira.

Edozeiñek daki arrantzaleen aspaldiko arriskuak zozkiak diran. Arraiñik ez aurkitzea eta itxaso zabalean len izan daben besteko askatasunik arraintzarako ez izatea, «milla»en arazoa.

ARRAINIK-EZA

Arraiñik-eza, batez be bokartari edo andobeari begira, ikusten da aspaldiko urteetan.

Idazki au egiten gagozan artean, antxobearen sasoirik onena dago igarotèn eta arrantzaleak aurpegi illunakaz ikusten doguz, poztasun gitxigaz.

Eta igaz bardin, orain urte bi be antzera.

Egia da berdela naikoa, ondo etörri dala, baiña ortik irabazi ain aundirik ez dator, eta antxobea, bokarta, oso urri dator, azkenengo egun oneitan ugariago agertzen ez ba'da, beintzat.

ITXASOAN MUNARRIAK

Beste alde batetik arraintzarako «milla»-arazoa dago.

Len legorrean egozan munarriak, baiña orain itxasoan be ipiñi egin dabez, eta gure inguruko itxaso-arloak bear dan bestean arraintzarako onak ez diran ezker, nabarmen dago ortik sortzen dan larri-unea eta gure arrantzaleak erbestean espetxeratuta ikusteak zer-pentsau emon bear dauku.

URTENBIDEA

Urtenbide lez ontzi aundiagoak egin eta ur aundiagoetara arraintzan joatea dala be entzuten da. Eta olako zerbait egiten be ba-diardue, baiña arraintza batzuk ez dira ontzi aundietan eta ur aundietan egitekoak.

Lanak eta bear-izanak alkartzen dauz gizonak eta bear ba'da bear-izan barriak olako ondoren onen bat ekarri al izango dabe: Izadiaren onurak guztion artean eta guztiok alkartuta atera bearko doguz, alkarren laguntzaz ezintasunik beteten dirala.

MINISTERIO DE CULTURA

Baserritarrak eta arrantzaleak dira izan be, gure maiak janariz beteten dauskuezanak eta eurai begira gizarte guztiak izan bear leuke esker onekoak: Itxasoa ta legorra dira janariak emoten dauskuezanak, baiña baserritarren eta arrantzaleen izardia ta arriskuak orretarako bide dirala.

Depositedo a las 13 de JUNIO de 1950

El Delegado Provincial,

ELEIZ-DEIA

Mundu zabal guztian gotzain ta eliz gizonok kez-
kati ta arduratsu gagoz eliz gizon ta mixiolariak gu-
txituaz doazala ikusirik. Beerakada aundia urteotan
arazo onetan egin dana.

Zentzundun gizon baten begietan ikusten da erri
batentzat gauzarik onuratsuen abade ona dala.

Aro baten euskal errian bertarako baiño eliz-gi-
zon geiago geunkan. Eurak ederto sakondu eben eus-
kalerri maitean kristautasuna, enda baten edertasu-
nik ederrena.

Asko izan dira mixiñoetara joan ta an bere azi
ugaria erein ebenak, naiz Asian, naiz Afrikan, naiz
Ameriketara, bardin Ozeanian.

Gure erria mixioetan txapeldun izan da, gure en-
tzute ona mundu danean erein eben.

Orain barriz zer jazoten da?

Zergaitik gutxitu abade, lekaide ta lekaimeak?

Gure erri danetarako abaderik be ez dago eta gu-
txiago mixioetara joateko!

Mundu zabal guztian gaixotasun baltz baten
afrontua, emengo gauzen zaletasuna-materialismoa
indartu da ta orrela espirituko bizitza, barruko bizi-
tza ta geroko bizitza aaztu dira.

Orrei gauzoi garrantzirik ez jake emoten.

Geienak ez dabe besterik barri, ondo jan, ondo
edan, ondo iantzi, diruak geitu ta askatasunkeriari lo-
karriak kendu, zaldi basatiaren antzera aske, lizunke-
ri guztietan kezka barik biziteko.

Jaunak beti lez deituten dau geienak munduko
kristau on bezela bizi daitezkan eta beste batzuk pau-
su bat aurrerago emon ta Jaunari guztiz eskainita,
sagaratuta munduaren gatza ta argia izan gaitzan.
Gazte askori deituko dautse Jaunak, baiña mundua-

ren jokera orrek indargetuta dagozan lez, euren alde-
tik erantzunik ez.

Elizgizon izateko, mixiolari edo ta lekaime izate-
ko munduko geiegikeriai uko egin bear jake.

Bulartsuak izan, adoretuak izan, biotzdunak
izan.

Gaztedi asko au ausnartu bearrean dago eta be-
rekautan biotzari itandu.

Abadegai etxeak erdi utsik dagoz, lekaide-etxe
lekaime-etxeak bardin.

Jaunak deituten ete dausta? eta bildurrik baga
Jaunaren deiari erantzun.

Ba ete dago gauza obarik guztia Jaunarena ta
besteena izatea baiño? Zuzentasunaren zabaltzaille
zintzua; benetako maitasunaren sortzaille te ereitei-
llea; beartsuen gordelekua saminduen poztzaillea;
gazteen garbitasunaren indartzaillea ta zaintzaillea;
umeen ezitzaillerik onena izateko deituten dautsu
bear bada Jaunak, ta abade ta lekaide ta lekaime izate-
a danori da.

Alde batetik mundua daukazu tiraka bere aurre-
rakuntza aundiakaz arroturik, beste aldetik Jauna
bere zer egin aundietarako deika.

Itxartu ta egiari jarraitu!

Euskaldun gazteak, ez bildurtu Jaunaren deia en-
tzutean, agertu benetako euskaldun lez, epelkeri ba-
rik!

Nortasuna erakutsi alde guztietan, gure erri mai-
teak iraun dagian beti gizontasunez beteak, kristau-
tasunez beteak.

Erantzun arin gure gotzaiñen daiari, erririk one-
na egin dagigun.

GALLASTEGI'tar Kauldi

ADORE BAGAKOEN ARTEAN

*Ez dagigu ezer!
Guztia dago zatitu-ta.
Ixilik nengoan baiña,
Guztia egoan apurturik.
Aurrera egin neban neure
atsekabearen bidezti
eta ez neban aurkitu
arduragakotasuna besterik.
Minbera dakust guztia
ta gure aberriaren zentzuna
ez dager argi...
Urratu egin gura neukez kateak
(geure izakerea lotzen dauskuen
kate anker eta nardagarriak).
Baiña isilik nabaitzen dot
Inguru zaratatsua:
Soraiokeriz eta ixilik,
koldar eta ardura bagarik,
begira, itsu, taiu antzuaz,
adore, bagarik.
Zer dagiket, baiña, bakarrik...?*

*Dagidan zerbait
eta noian aurrera,
al dodana egiñez,
adore ta asmu barriz,
inguruak be itzarri daitezan
itxaropenari adi.
Galdutako onari negarrez
geratu ba-nadi,
nire garrak ez leuke
erantzukizunik.*

* * *

*Noian, ba, aurrera,
(neure gogaieri jarrai)
aberiaren zorionari adi,
naiz-ta ezetarako
adore bagarik
inguruak aurki.*

AURRE-APRAIZ

ANDRA MARI

*Arrigarria zara
andra danen artean
aturiko Ama;
GOTZON bat eldu jatzu
lurrean sortu nairik
kristauen Errezuma.*

*«Jaunaren mirabe naz»
«zure itza bete bedi»
zeru ta lurretan;
Mundu Gaizkatzaillea
GOGO bidez sortu zen
zure erraietan.*

*Jesus Aurra jaio zen
amatasun garbian,
txabola zarrean;
aingeruak mendian
artzain langillei deika
gurtze izenean.*

*Ezkatapen aundia
aberen jagoleak
Artzain Buru gurtzen;
Maria, zer dakusu...
gizonik apalenak
semea goratzen.*

*Izarrak dardar dagoz
arrituta begira,
ortzetik lurrera;
ama, zure altzuan
aurra ikusten dabe;
Jaungoiko berbera.*

*Jaungoikoaren ama
egin zaitu Jesusek:
itz arrigarria;
zure duintasuna
miresten dau zeruak,
lurreko andria.*

PAULIN

CUBA BARRUTIK (XVI)

—NEKEZARITZA—

Ez dago alde makala entzuten danetik ikusten danera. Cubako nekezaritzaz be gauza bardin xamarrara esan bear izango dogu. Sarritan entzun izan ditugu ango nekezaritzera berezien barri. Bertara joan eta ikustean aurretiz entzundakoak ez dirudie ain asmo eta egite ederrak.

Itz baten esateko, auxe esan bear izango litzake: ezin dala nekezaritzaz kaxkarragorik ikusi, ezin-txarragoa dala, bai erakunde aldetik, eta bai egitarau aldetik. Inork ez dau ezer jakin nai, beste gauza askotan gertatzen dan lez, ango nekezaritzaz. Alperkeria utsaren ondorio bat baiño ez dala esango neuke.

Beste arlo askoren antzera, nork ukatu daike plangintza baten bear izana? Plangintza onek nazio maillan egin bearra izan ezker eta egin ezik, ondorio-ak zeintzuk litzakezan asmatu bearrik ez dago. Adibide bat jartzeko auxe esango neuke: ez dago la ez elbururik eta neurbiderik Cubako nekezaritzan. Zergaitik ete da? Egia esateko, ez da lurragaitik. Cubako lurra emonkorra da landu ezker eta landutzen jakin ezker. Itz baten esateko, ia-ia lurra bertan beera itzita dagola esango neuke nik.

Adibide bat jartzeko naiko litzake urtean ustaldi bi lortu daitekezala esatea. Bat baiño ez da lortzen, eta gaiñera txarra.

Uztei begira, ikusi ez ditudan bederrak eta lur emaitzak oneizek dira: ez alfafarik, ez erremolatxarik, ez garirik, ez garagarrik, ez ezer.

Bedardiak eurak be oso txiroak dirala esan bearra daukagu. An ez da emengo «bedar sikurik» egiten, ez solorik garbitzen bedar arloan. Abereak barruti oneitara botatzen dira, nai dabena edo aal dabena jateko.

Abereak zerbait jan bear izango dabela eta, pensurik emoten ete eutseen jakin miñez bateri baiño geiago itaundu dautset. Egia esateko, edo ez dautse emoten, eta ezin ikusi izan neban. Onela ulertu daiteke abeltegi batzutan eundaka abereak ikustea, goseak erdi illik eta pekorotzez beterik.

Belardiak ez dabez garbitzen, ez eta eurretan abonorik botatzen. Eta erabiltzen diran apurak arteragoko urteko bedar legortuaren gaiñean botatzen ikusi ditut. Jakiña, ez da arritzekoa epe labur batetan belardiok sasiz edo antzerakoz beteta ikustea.

Segak eta itaiak be naiko aintziñekoak ziran. Onez gaiñera arrigarriago da zertarako erabiltzen dabezan aztertzea. Bein baten bedar zaarrak segaz ebagitzen ikusi bearrean, matxetez ebagitzen ikusi nebazan.

Oraindiño zerbait geiago esan nai izan ezker, beste au be aitatu bear neuke: nire egonaldi osoan sega bat baiño ez nebala ikusi, eta izan be oso zaarra izan zan.

Zer dala-ta atzerakuntza au? Sarri askotan erritarren erru utsa be izan daiteke: Estaduarena osoorik dana izatean, jendeak ez dauka aalegin aundirik egiteko asmorik ez gogorik. Jendeari abereak geixotzeak edo ilteak ez dautso ardura aundirik emoten. Oraindik geiago: iltzen diranak eurak be bertan beera izten dabez, berez usteldu eta auts biurtu arte, edo txoriak jan arte.

Uzta-arloetan be gauza berbera jazotzen da, bes-tela ezin da ulertu arroza bera be zelan neurtuta emoten dautsoen sendi bakoitzari. Era onetan baita indabak, kipulak, berakatzak, patatak, yuka, azak, piperrak, tomateak indabak eta abar...

Letxugak, azelgak, garabantzuak, lentejak eta antzerakoak ikusi be ez dira egiten.

Akeita garauak batzea bera be arritzekoa izaten da. Alan-olan egin eta kito. Lan au egiteko askok eta askok igandeak erabiltzen dabez: «igande gorriak» izeneko igande egunetan lan egiteak saribide bat emoten dautse. Baiña onetan be ez pentsa burumin aundirik izaten dabarik: amasei litroko ontzi bat bete ezker, lana bertan beera itzi eta etxera biurtzeko eskubidea izaten dabe.

Kaña azukreaz be bardintsu gertatzen da. Entzun izan dodanez, kañaberari azukrerarik geien ateratzen jakon sasoi urtarrilletik jorrailera izaten da. Epe au ez da betetzen, oraindik bagillean bertan be ebagi barik eukitzen dabe-ta.

Ebagitzerakoan bertan be ez da arazo makala izaten: ez pentsa aalik eta sustraieragotik egiten dabarik.

Egia esan, Castroren aurka joaterik ez dago, alperkeria bide dalarik ez bada.

PIRU LEGARRETA

GU ONDARRUTARROK

Euskaldunok ba-doguz, nire us-tez, gaurko erara ondo agertu eta ezagutzen ez doguzan berbak.

Gure aldi bateko *ds* eta *dz* izkiak, esate baterako, egoki agertzen ete dira gaurko erara?

Gogoratu berba batzuk: Dsanga edo dzanga, dsinga edo dzinga, dzaztada, dzart, dzapart eta abar.

Gaurko erara esanda; zanga, zinga, zasztada, zart, zapart eta abar erri-kutsua galduta agertzen dira, jatortasuna kenduta.

Igarilari batek molla gaiñetik bere burua uretara jaurtiten dabe-nean, dzanga egin edo dzangadaka egin edo ibilli, eta abar, oraindik zangadaka baiña bereziago oguzi eta aozkatzen doguz. Dzangada = zambullimiento, esaten dau Azkue'k bere Iztegian. Baiña ortik kanpora, ardua esatean, dzangada bat emon edo egin erabilten dogu, erderazko «echar un trago» lez.

* * *

Psikologia ta sikologia bardiñak izango dira, baiña ez dira bardintsu iruntsiten.

Beste berba bat, dzingan ibilli, ez da zingatik datorrena.

Dzingan ibiltea erramu bategaz txanel baten ibilteari deituten dau-tsagu. Ostera zinga, Azkue'ren esan-naietan, zarataka edatea da, zarata ataraz edatea da. Ondarroa'n len esandako dzangada edo dsangada. Zinga, erdaldunak erabilten daben «ciar» egaz kideu leikena izan lei. Ez daigun esan erderatik datorrenik, erdaldunena euskeratik etortea be izan lei-ta.

* * *

Ze ikusi dauka berba onek, ja-keak, gabardinak eta antzerako

txamarrek atzean erditik bera eukiten daben ebagi edo errekor-teagaz?

Ondarroa'n eten orreri, ebagi orreri, dzingalekua deituten dau-tse. Txamarren bat osoa barik, atzean orrela etenda datorrenean edo daroanari, dzingaleku ta guztiko jakea, esaten daute.

Txanelak, batel txikiak, atzean eroaten dabe erramua bertan sartuta dzingan erabili al izateko zulo erdika, edo olari atarako erretena lakoa. Ortik ete datorkio izen ori?

Beste berba ba: dzapart.

Ondarroa'n dzapart egin, dzapartadaka eta abar, bateri indarkeriz oratu, atrapatea da, eta dzapartadak emon edo dzapartadaka ibili, «kristonak» emotea da, edo ta jo ta jo erabiltea.

Gure errian «kristonak» emon edo «tollanak» emon, bardintsu dira, bata fedeko gizona (Kristo) eredutzat artuta eta bestea itxasarrain bat (tolla) irudituta. Tolla bizi andiko arraiña, dirudianez, eta jo egin bear izaten eben ondo ilda lagateko. Ortik «tollanak» emotea.

* * *

Beste berba bat:dra.

Ikusi-makusika ibiltean, edo zer-dalaka ibiltean, edo baten itaunari bestearen erantzun ziurra emotean, ondarrutarrak dra egin, edo soil-soillik dra, erabilten dabe. Igarri dala edo alaxe dala esateko.

Azkue'k ba dakar berba au bere iztegian, baiña esan-nai au emonda: Dra-variante de dira, conjugación del auxiliar izan. Edo ta = onomatopeya de la caída, del ruido de un golpe, de la aparición repentina.

Zeaztuten ete da bere azalpen edo argibide onetan ondarrutarrak

berba orregaz adierazoten dogu-na?

* * *

Jarrai daigun geiago billatzen.

Dramio. Azkue'k ez dau aitatu-ten berba au. Guk dramio'gaz erderazko «apresar» esan naia agertzen dogu.

Dramioka ibili, au da, alkar arrapatzen, bai eta alkarri igarten be, len esan dogun dra berba oiñarritzat dala.

* * *

Gaurkoz beste bat geiagogaz amaituko dogu: Dar-dar egin.

Guk dar-dar egitea ezetz esate ordez erabilten dogu geien bat. Azkue'k = «onomatopeya que indica temblor», esaten dau.

Baiña guk batek dar-dar egin dabela esaten dogunean, arpegia erabiliaz edo eskua erabiliagaz edo gorputzeko adierazgarrien bategaz ezezkoa agertu dauala edo esan dauala adierazi nai izaten dogu.

Azkue'gana geiago urreratzen gara, jan-osteko gozuari, flanari edo gure unetan erabilten zan ke-sekema (queso quemado) esan bearretan, gure erriko askok «dar-daraku» deitzen dautsenean, potutik ataratean erabilten daben dar-darea ezaugarri artuta.

Nai eta gaur orrelakoak aintzat artu ez, beti be jakingarri dira, ezagutu eta erabili doguzanontzat, gure berbetako adierazgarri eta esan naiei oiñarri, sustrai, iturri edo senitartea billatzea, eta batez be, gaur gaurkoz, gogoratzen alegindutea.

Augustin ZUBIKARAI

ZORUNDUN BARRIA

Barri pozgarri bat eldu da euskal errira, euskaldun siñistedunak zori onez bete gaituena: Gure maite maite dogun Ion Paul bigarrenak, aurten, euskaldun gazte bat Zorundunen zerrendan ipiñiko daua.

Gazte au Sakramentu txit Santuaren Domingo Irukoiztarra da.

Erbestetarrak ao batez diñue euskaldunok santu gutxi ditugula. Ori ez da orrelan, egia da zorundunen zerrendan ipiñiak gutxi dirala, baiña benetan santuak izan diran andra ta gizonak millaka ta millaka doguz gure zeruan.

Gogoratu gure gurazo zarrak. Nork esan ez zirala benetako santuak?

Erri ta bazter guztietan izan doguz euskal errian bizitza santuan bizi izan diranak. Alegindu bagintzaz santuen zerrendan legokez, baiña egunero ta ugari ikusten genduan gauza zan letz ez geuntsan garrantzirik emoten.

Gure errian ez bakarrik eliz-gizonak bai ta be andra, gizon eta gazterik geienak benetako kristautasunean bizi ziran.



Ori ez al da santu izatea, ala?

Esaten da: eusakaldunok esatean labor eta egitean luze gareala. Eta orrelaxe da izan bere...

Orain Aita Santuak gure begien aurrean, guretzat zuzenbide ta eredu izan daiten zorundun barri au ipiñi nai dauku.

Nor dan bera?

* * *

Sakramentu txit santuaren Domingo Iturrate, euskal erriko basertxo zoragarri baten jaio zan, ain zuzen bere Biteriño Dima'ko auzune politean, Gorbeapeko aran zoragarrian, santuen errian (baten batek Arratiari Santuen erri esan eutsan).

Bere gurasoak lugin apal ta kristau kristatuak.

Andik urten eban mutiko euskaldun zintzo orrek, Algorta'ko Irukaioiztarren etxean erlijio bizitzari asiera emoteko.

Andik Santanderreko «Bien Aparecida» santutegi ta lekaide etxera eldu zan, andik gero, 1917'an Erromara eldu zan bere ikasketa nagusiak egitera.

Antxe amaitu ebazan bere ikasketak eta 1925 an abadetu zan.

Ordurako oso gaixorik egoan.

Etorri zan Algortara osasunaren billa, baiña osagille danak galdutzat emon eben eta aize garbiak artuteko Belmonteko lakaide-etxera bidaldu eben, baiña dana alperrik, bularreko gaisoak guztiz artuta eukalako, ta azkenez, 26 urte zituala santuen usaiñean 1927'an il zan...

* * *

Bizitza laburra, baiña bete bete.

Mutikotxoa zala urten eban Dima'tik aingerutxo baten antzagaz. Bai Algortan, naiz «Bien Aparecida»n naiz ta Erroma'n, beti zaindu eban aingeru antza»

Anaidiko legeak oso-osorik beteten ebazan; ikastetak, gaisorik egon arren, txapeldun lez amaitu ebazan; Pilosofian eta Teolojian maixutza-doktoraduak lortu ebazan.

Abade izan aurretik bere jakituri ta santutasunagaitik beste ikasleen zuzendaritza emon eutsoen bere nagusiak.

Erderarik be ez ekiala urten eban gurasoen etxetik eta azkarra zalako ta langillea erdera, latin, griego, Pilosofia, teologia ta beste ikasketa guztiak, lenengo zala, notarik onenakaz amaitu ebazan.

Nun dago gazte onen santutasuna?

* * *

Gauza zaratatsurik ez eban egin, astirik bere ez gazte, gazterik il zalako, baiña bere santutasuna ixillekoa zan, barru-barrukoa.

Bera il zanean, ao batez esaten genduan: Ara beste Ume Jesusen Teresetxo deun bat; ara beste Gonzaga'tar Luis Deun bat.

Santutasunik aundieta ta nekezeta, une bakotxean une orretan egin bear dana batetea da.

Orretarako une guztietan, gau ta egun zur egon bear da, gauza nekeza benetan, eta orixe izan zan Aita Domingo Beneragarriaren egiz bedar artean gordeta dagoan lore txikitxuaren usaiñ zoragarria. santu bat dozulako.

* * *

Olakoxea izan da Aita Domingo'ren santutasuna Orain aita santuak atarako dau argitara santutasunaren loretxo apal au ta gure begien aurrean ipiñiko dau argi dagigun kristau bideetan.

Eredu ederra gure gaztediarentzat, ostera siñismenean indarturik santutasunean bizi daiten.

Arratia ta euskal erri daneko kanpaiak, gertu egon egun aundi

(Continúa en pág. 15)

GORDEXOLA

Gu, gudaritzan ibilli giñanok, urteroko bazkari baten bitartez, besarkatzen gara alkartasun baten.

Urtean bein baiño ez bada be, alkarrekin egun eder bat igaroteko oituran.

Orrela guda-talde guztiak, bakoitzak bere urteroko eguna eukiten dau. Guk, GORDEXOLA guda-taldekuok, Orrilla'ren lenengo egunean ospatu genduan anaitasun egun ori.

* * *

Danok dakigun lez, Orrilla'ren lenengo egunean, langillearen eguna ei da, baiña, egun orretan, langille jaia baiño, burruka-eguna esatea obeto izango litzake, ba, egun orretan, dana da arrenkura ta illeta, gorrotoa bitarteko, agertzea.

Langilleak, euren agerkundetean, txaidetik txaide deadarka ebiltzazan bitartean, guk, GORDEXOLA guda-taldeko gudariak, gudari lez langille zintzoak be izan ziranak, norberentzako arrenkak baiño len, aberri maitearen eskubidetan bidezko agiriak izan ziran.

GORDEXOLA; Barakaldo ta inguru ortako lur-aldean sortu zan, ortik ba, guda-talde onen gudari geienak, meagille (mineros) ta burni-langil gizon artean sortutako aldrea jatorra; euzkera, gitxi ekien baiña, abertzale biotzdun jokutzen ekien... eta dakie.

Igaz lez aurten be, «El Regato» Barakaldo'ko auzune baketsu orretan batu giñan oraindiño bizi garenok, bakoitza bere emazte ta sendiarekin. Eguerdiko amabietatik aurrera asi giñan Regato orretan agertzen, igarri barik, notintza geitu zan eta, jakiñekoa dan lez, bata bestearen billeran pozkariozko besarkada baten batu giñan.

El Regato orrek, ez dauka zer ikusi aundirik; dirudian lez, oturuntzarako (jataldirako) gertau-ta dago, ba, iru lau jatetxe ondo gertatutakoak dagoz, txadontxu bat bere bai, bost edo sei etxe-bizitza; GURE Jaungoikuak, Barakaldo'ntzako sortu eban auzunea, kutsukor bular kedartsu-ak aizebarritzatzeko, etxe asko bere egin ezin leiken mendi tarte orretan.

Txadontxua, ez da ikusmengarrizkoa, lau orma kare zurizkoak, korubako ta andikeritasun agerpen barik, apaltasun utsekoa.

Nere ustez, berreun gizadi baiño geiagoko utsunekoa da txadon au. Aryatsaldeko ordu batetan egin zan jaupa eder bat, Bermeo ta Busturialdeko taldeak jaupa laguntza ederra abestu eben gure izkuntzan, gudari geienak, gastelar izkuntzakoak izan arren, euzkeraz izan zan dana.

Itzalditxoa, oso sutsu ta atsegingarrizkoa zan, biotz abertzaletasun berpizkuntza esnatzeko aiña, azken iru lau itz laburpenekuak, gasteleraz egin eban.

Jaupa ondoren, astiro-astiro, jatetxe ingurura urreratu giñan. Antxiñako lagun zar artean, bata bestearen bizitza ta egoera goraberaren gaiak azalduten joan giñan.

Irurak aldian, jantokia zabaldu ondoren, 397 gizon maikidetu giñan bakoitza bere emazte ta seni-dearekin.

Bazkaldu aurretik, Gure Aita otoitu genduan abestuz, gero Euzko Abendaren Ereserkia ta Gorakada batzugin, bazkaltzen asi giñan, bazkaltzen asiaz batera, otoz-otoko (improvisado) alaitzaleak azaltzen ziran eta olan igaro zan janaldia. Txola ta txokor unean, nunai abeslariak agertu ziran, abeslari gartsuak, antxiñako abetzale zintzo eztarritsuak, a zan bai entzun ta ikusteko batasuna.

Anaitasun baketsu baten egon giñan zazpirak ingururaño. Barrero danok zutundik, lerdan ta biotzbatez, txistuaren eresneurritz abestu ziran GURE AITA, EUZKO ABENDAREN ERESERKIA ta Agur Jaunak.

Pozkario ta anaitasunezko agurka baten ta gure Jaunak alan gura badau, datorren urtean barrero alkartzeko eskeintza egiñaz, GORDEXOLA'tarrok El Regato orretatik aldendu giñan.

GORRI

LIZARDI, OLERKARI

Aurten ditugu 50 urte Lizardi il zala. Larregi ez, baiña naikoa egin da or-emen aren eriotz-muga al-bait ondoren ospatu al izateko. Itzaldiak, jaiak, alkar-izketak, mai-ingurukoak, poesi-batzaldiak, liburuak eta abar... Izan be, ori ta geiago merezia dogu zarauztar olerkari punterengo au. ZER'ek bere are-garautxoaz ezarri nai izatea, ospakizun txalogarri orrei nunbait, ezta arrigarri.

A Tolosa'n, 1933'an, il zanean ni Begoña'n nen-goan irugarren Teologi-urtea ikasten. Biotza dardarazo euskun jazokun orrek, eta berezkoa zan guk aren eriotzan min artzea: garai aretako euskal goranai bizian, bete-beteaz esku-artuak genbiltzan gu be.

Naiz-ta gu oraindik asi-barri, axe genduan izar dirdaitsu. Or ziran Orixe, Lauaxeta, Loramendi, Jau-tarkol... Baiña Lizardi'k eroaskuzan begiak eta biotzak.

Lur-jota lez itxi ginduzan aren itzaltzeak; ez, alan be, lanerako gogo barik, eta aurrera jo genduan geure arloan.

Aren utsunea bete nairik? Bai orixe! Eta ondo-rengo gerra zitala, ekaitz ikaragarri lez, gaiñera jausi ez ba'litzakigun, eta langille amorratu areik, ia danak, batzuk illak eta beste batzuk erbesteratuak izan ez ba'litzaz, Lizardi, gailen-gailen zala, gaiñetik pasa ta aurrerago egiteko beste adore ta kemenez gentozan orduko euskal idazle ta poetok.

LIZARDI, EUSKALTZALE

Zarautz'en jaio zan Lizardi, 1896-4-18'an.

Amaika urteko zala, Tolosa'ra aldatu zan bere sendia.

Bere ikasteak, ba, lenengo Zarautz'en eta gero bigarren maillakoak Tolosa'n egin ebazan; batxiller amaitzerakoan, lege-karrera ikasi eban Madrid'en.

Ondoren, 1917'tik, «Perot» Metal-Eun fabrikan asi zan lanean, laster bertako jerente izatera eldurik.

Eredugarria izan zan aren gaztaroa. Zuurra ta biotz-onekoa zalako, adiskide ta lagunak errez beraganatzen zituan; beste aldetik, katoliku zintzo lez zeatz eta meatz beteten ebazan bere eginkizunak: fede aundiko ta Jainko-zale errimea zan.

Begoña'ko eliza nagusian ezkondu zan, 1923-2-2'an, Frantziska Eizagirre'rekin. Ama ta senar-emazte, pozik bizi ziran Tolosa'n euren seme-alabak azteko lanari ekiñik.

Garai ontan, amar urtetan, jan bear eben ogia irabazteari itxi barik, euskaltasunari be berea emoten alegindu zan. Zelako ardurea erakutsi euskun umeak batez be euskaltzaletuten! Itzaldi, antzerki, euskal-egun, bertsolari, olerki jai, amaikatxo joan-etorri izan zituen!

Orrez gaiñera, euskera sakon ikasirik, eta gero ta geiago sakondu naiez, aren idatzi bearra, itz-lauz eta bertsoz, gure izkuntza «aundiki-soiñekoz yantzi-bearezko leiaketa gorrian».

Eta, azkenez, 37 urte bete bage, Tolosa'n il zan Lizardi, 1933-3-1'an, igande arratsaldeko iru t'erdietan. «Otoitz egin, zerura nadin», esaten eban pittintxo bat lenago; eta bere umeai: «Ene kutunok, agur; ononak izan», pa gozo ostean, bedeinkatzen ebazala. Berak kanta eban Egun aundirako bidea artu euskun gure olerkaririk onenak. Euskal-erri osoak negartu eban Lizardi'ren eriotza.

Gizona, apurka apurka, ornidu oi zanez eta jakitez. Edozein gaitan, jakiña. Lizardi etzan egotik su-durrera euskaltzaletu, ezta euskal idazle itsumustuan gertatu be; mintzatu ta irakurriaz biurtu zan euskal-

tzale, ta ikasi ta idatziz, euskal idazle. Eta nai doguna ekiñaren ekiñez lortu oi dogu.

Batxillerra amaitu ebanean, ia euskera barik aurkitu zan, eta barrero euskeraz ikasten asi bear. Lege-karrera ikasten astean, beraz, euskeraz be sakonki ikasten asi zan, eta gogo ta borondate sendo baten jabe zanez gero, sustraiz aztertu ta ikasi eban bere aberri-izkuntza.

Berak diñoskunez, gaiñera, ume zalarik konturatu zan barruan eroian kantanaiaz. Ortarako gizamintzoa menderatu bear, naitaez.

Kanta-irrika orri nasaitasuna emoteko, zein izkuntzaz jardungo ete eban? Erderaz ederto ekian Lizardi'k. Zein izkuntzari oratu, erderari ala euskerari? Baiña ez. Askatu zan tentaldi ortatik. Naiz-eta nekeak neke izerdia atera-bear, ak bere asaben izkera ikasiko eban.

Legeak ikasi-ala, idazteari be ekingo dautsa, 1916'tik asita ekin be; Bilbo'ko «Euzko-Deya»-n azaldu zituan bere lenengo euskal lanak. Eragozpen ikaragarriak izan zitun orduan be euskereak, Primo de Rivera'ren denporan batez be. Baiña 1926'garen urterantza, Gipuzkoa'n lenengo ta Bizkaia'n gero, euskereari indar-arnasa emoteko euskaltzale zintzoak jagi ziran. Jaiak eratu bear ziran, jenteari kementa ezarteko; Elgoibar'en ospatu zan lenengoa, Motriku'n eta Arrasate'n gero. Arrasate'n sortu zan ainbat eder egin eban «Euskaltzaleak» bazkuna.

Sekulako lana burutu euskun Lizardi'k urrengo urteetan, orduko aldizkari ta egunerokoetan idatziaz batez be, ari ta oni zirika egiñik, urlia ta sandia euskal lanean ipiñiaz. Ordukoak ditu bere olerki ta prosazko lanik bikaiñenak; ordukoak ainbat eta ainbat artikulu, larogetik gora, prentsari, olerkiari, irakas-tolari, antzerki ta teatroari buruzkoak, ia geienak.

Karta mordoak ditu berak idatzi ta artuak. Orduan asitakoak dira «Euskal Egunak», «Olerti-Egunak», «Euskaldun Ume-Egunak», «Bertsolari Egunak», «Kirikiño Saria» ta olakoak, euskera biztu ta ta goratu nairik.

Ordukoa dozu Lizardi'ren beste asmo eder ba bere: Euskal Egunkaria opa eban, eta ainbat egin eban asmo ori aurrera eroatearren.

Asmo ta lan guztiok zirala tarteko, izen aundia lortu euskun Euskalerra osoan, abertzaleen artean batez be. Eta eusko alderdia, ekaitz ostean zerbaite ratu zanean, Gipuzkoa Buru Batzarreko idazkari izentatu eben. Alan eta guzti be, beti alderdikoa izanagaitik, ez jakon ain gogoko politika-ekintza, eta euskal arloari beru-belarri lotua ebillen egundo be aspertu barik.

LIZARDI, OLERKARI

Olerkari bete-betea dozu Lizardi, Naiz-ta au ta bestea iñoiz esan euren buruak bakarrik goi ikusi

gura dabezanak, oraindik ez jaku iñor be zarauztar au eldu zan goi-maillara eldu.

Umetatik ekarren oler-miña ozka bizian, eta auxe landu eban gogotik aziaz eta gizonduaz joialarik be.

Lizardi etzan goizetik gabera idazle ta olerkari aurkitu, arian-arian egiñaren buruz baiño.

Etzan ugarikor izan, urri ta neurtua baiño. Zorrotza bere buruaz bai gogapenetan eta bai azaleko eder-garrietan. Bietan giar eta dotore; gogai aldetik barri ta azalari dagokionez oso-oso.

Legeak ikasten ebillela asi zan, 1916'an ain zuzen, olerkitxoak be idazten; erbestetar olerkiak irakurten eta barruko eder-kerari ikara eragiten. 1933'an poesi-liburu bat emon euskun, «Biotz-begietan», eta emen aurretik eginda eukazanetatik 21 sartu zituan bakar-bakarrik.

Bilbo'n argitaratu eban Verdes-Atxirikaren irarkolan, euskeraz ta erderaz, oso dotore. Poesi-liburu bikaiña benetan; ez aurretik, ez ondoren ez da olakorik gure euskal literaturan agertu. Orixe'ren itzaurre aberats betea dakar, adiskide miñak ziran biok eta liburu ori alik eta apaiñen argitaratzen alegindu ziran.

Metafora ta sinbolu bizi-biziekien euskal aberria eta beronen izkuntza abestu zituen batez be, eta Euskalerriko poeta lirikurik bikaiñena egin jakun.

Oraintsu, aren eriotz-muga dala-ta, barrero argitara emonak dira aren OLERKIAK, iru euskal olerkariren artean gertautako argitalpen dotore baten.

Iru atal daukaz liburuak: 1) «Biotz-begietan», 1932'an ekarri zituan olerkiakin, baiña euskeraz bakarrik; 2) «Umezurtz Olerkiak», Lizardi il ondoren Aitzol'ek egiñiko argitalpenean etozan olerkiakin, eta 3) «Euskal Pizkundera», Lizardi'k il aurretxoan buruturiko olerkiaz eta beste eraskin batzuek azorniduta.

Gutziz 340 orrialde, Donosti'ko «Erein» argitalexteak argitaratua, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzko-eko Foru Aldundiak, Zarautz eta Tolosako udaletxeak Lizardi'ren omenetan 1983 urtean antolaturiko egitarauaren barruan burutua.

Laugarren ediziñoa dogu au. Ez da asko. Urtero argitaratzea merezi leukie Lizardi'ren olerkiak. Gaurko ainbaten txoro-bideak artezteko be, mesede aundia ekarri leikeo orrek euskal olertiari.

Gazteak bide barri-zale ditugu beti, baita Lauaxeta, Lizardi ta Orixe be, eta onein ingurukoak; baiña zentzunezko bidetik beti.

Munduko literaturak ez dakigu aurrera ala atzera egin dauskuen azken-urteotan, baiña asko beintzat bide trakets bez dabiltzana, ba-dakigu. Gure poetak be, ez gitxi, orrean atzetik ibilli naian dakusguz. Orreik, oster, euri-jasa ondoren potzu txikietan jagi oi diran puzpiluak besterik ez dozuz. Egin dagigun, ezer ba'gara, Lizardi'ren antzeko olerki illezkorra.

AUTESKUNDE-OSTEAN

Bai irakurle, aldi zaratatsu bat eta askorentzat bai ta be urduritsu bat igaro ondoren, asi gara barriz bareune baten. Noz arte? Gauzak bear dan bidetik jarraitzen ba-dabe, ea beste urte baterarte. Orixe bai, urrengokoak, euzko Lege-Batzarra ta Euzko Jaurlaritza aututeko izango diran bezala, oraingoan, Udalkariak eta Erki Aldundiak aututeko izan doguzanak bai-zen edo geiago garrantzi dabenak izango dira, bada, espaiñi-zaleak eta Euzko lege-Batzar orretara joan nai-ezdabenak garaille urten-go ba'litaz, zori txarrez, nai ez da guzti be, bear ba'da betirako agur egin bear izango geuskioe nekezka eta lan asko eginda lortu doguzan azkebide geienai, ezkerak naiz eskumak baten geiagotan adirazo daben gorroto zitala ikusirik.

* * *

Ainbat ziran gure artean be azkenengo urteetan, espaiñiar eskumatarrakandik lortu ez dogun zerbait baiño geiago lortuko gendubalakoan aurkitzen ziranak.

Euzkotarrak izanik erriaren aurrean abertzale bezela aurkezturik ezker orrean inguruan bira-biraka ibilli diranak bere bai, baiña, bear diran bezala begiak igiri ba'dabez, errez ikusi izango dabe noraiño-kua dan espaiñiar eta euren lagu-

nen euskalzaletasuna: oso erkiña euren artean eta zitala euzkotarrontzat.

Begiratu baiño ez daukagu bai eskumarrak eta bai ezkertarrak zer egiten diarduen Naparra'n; euzko ikurriña beztertu, euzkera zapaldu eta euzkotasun zerbait daukon guztiari oztopo guztiak eta geiago ipiñiaz, napaz-erri sin-duak ausnartu ez dagian.

* * *

Edozeiñek daki, azkatasun pizka bat lortu dogunik ona zenbat aurreratu dogun euzkera arazoan, ez guk nai genduan lako euzkera garbi errikoian baiña, ezin ukatu aurreratu egin dala gure izkuntzaz, nai-ta ezetariko erraztasunik emon ez espaiñiar agintariak.

Zetan esan erri-apaintze ta zaintza (Administración) egin dabena erri-gizon-emakumeak? Ori-xegaitik geiago be izan dira barriz aukeratuak lengoak berak eta eurrakaz batera aurkeztu diranak.

Eta ez dira bearbada geiago autuak izan siniste edo uste geiegi ikusi dalako erri batzuetan.

* * *

Gure errian, esate baterako, lan gitxi eginda urte-barruan eta, autetsgaien artean gizon-emakume ezagunagoak ez ipintearren, bear-

bada, ziñegotzi bi gitxiago euko ditu Euzko Alderdi Jeltzaleak.

Eta ez erri orretan abertzale ezagunagorik ez dagoalako, pizka bat baiño geiago taldekeriz egin dalako baiño, norberekeriak alde-batera itzi ta alderdikide guztiak bat-batean jokatu bear zan aldian.

Urren baterako irakatsi bezala izaten ba-da, dana emongo geun-ke ontzat.

* * *

Orreterako baiña, batzoki eder zabalak arda batzuk edan, sabelkada batzuk egin edo kartetaldi batzuk egiteko baiño geiago izan bear dabe eta, zori-txarrez, guk ezagutzen doguzan batzoki batzuk besteterako ez dirala esan leiteke, bada, azkenengo urte bi edo iru onetan ez dogulako beste gauza ondasungarririk ikusiten; itzaldiak, alkar-izketak, gazteak naidabezan jolas garbiak, oneintzako itzaldi egokiak eta abar luze bat, euzkera, dantzak eta jakintzazko jardunak. Orreterako izan bear dabe geien bat euzko Batzokiak, alderdikide askok ezagutzen daben edo dogun baiño askotzaz geiago eta obeto ezagutu daiguzan aldi onetako gora-berak, geure legeak, eskubideak eta beraz geure benetako Aberria.

ALTUNA'TAR JOSU

Euskalerritik Mundura Begira

ARJENTINA

Maiz entzuten da azkeneko urte auetan Arjentina'ren izena. Eta ez, ain zuzen, onerako. Miñ ematen dausku Arjentina ain txarto ikusteak, biotzetik maite bait dogu euskaldunok Arjentina.

Zenbat millaka euskaldun ez da joan emendik aruntz?

Asiera-asieratik an gintzazan gu. Arabarra zan jatorriz, lenengo aldiz Buenos Aires eraiki eban Mendoza, eta Bizkaitarra, Orduña-aldean jaioa, Garay, bigarren aldiz uri ura eraiki ebana, lenxeago Patama ibaiaren ertzean Santa Fe'ri jaiotza eman ostein.

Elizgizon, gudari, artzai eta nekazari, irakasle, politikari, eta ola-gizo..., Arjentina'ren edestia Euskaldunen abizenez beterik dago.

* * *

Arjentina'k askatasuna joan dan mendean lortu ebanean, Martin Alzaga izan zan eginkizun aren eragillerik garrantzisuenetakoa.

Berak zanpatu zituan 1807'an, Plata ibaiaren lurraldeak berenganatzeko an lurlegorreratu edo desenbarkatu ziran Inghlanderriko gudarozteak.

Urte bete geroago, 1908'an iraultza baten buruzagi zan Alzaga, Arjentina'ri askatasun osoa eman naiean.

Garaitua izan zan; baiña urrengo urtean, berak sortarazi zuan Buenos Aires'en lenengo Jaurlaritza, naiz Jaurlaritza orren buru, oso-oso adiskide ez ziran Saavedra eta Moreno jagi izan.

* * *

Asieratik izan da naasia, odoltsua eta borrokez bete Arjentina gaixoaren edestia.

Aurreneko Jaurlaritza artako gizonetatik, Moreno edenez edo benenez erailla izan zan; Saabedra jaurlaritzatik jaurtia; eta Alzaga fusillatua.

Ala ere, izan eban onek Arjentina'ri Oñarri-lege edo konstituzio bat emateko astia, gaur-egun oraindik zutik dagoan Oñarri-legea.

* * *

Andik urte batera, 1812'an, San Martin jeneralak izkillu-kolpe batez bota zuan ankaz gora Alzaga'k sortarazitako Jaurlaritza ura.

Orrela sartu ezpata Arjentina'ko politikan. Ezda geroztik gure lur maite artako politikan beñere ezparatik faltako. Militarrek ondatu dabe Arjentina.

Lurralde zabala da Arjentina: 2 milloi 776 milla eta 656 k², dauz. Bai al dakizu zenbat aiñakoa dan zabalera ori? Ba, Espaiñi, Alemani, Frantzi, Itali, Inghlanderri, Suez, Portugal, Noruega, Grezi, Irlanda, Belxika, Olanda, Suiza eta Islandi baiño aundiagoa, ots komunismuaren azpian ez dagoan Europa guzia baiño aundiagoa!

Lur aberatsa da gaiñera, izugarri aberatsa, Arjentina; lurgaiñetik eta lurpetik aberatsa.

Ala're gose gorrian bizi dira gaur arjentidarrak; eta gudarozteari zor dautsoe gosea.

Bost ogirekin eta iru arrainekin lau milla gizoni jaten emateko Yosu'k egin eban miraria bezain mirari bat bear omen zan Arjentina ogirik gabe eta aragirik gabe uzteko. Peron jeneralak egin eban mirari ori. Peron'ek eta Evita bere emazte txoro marrulariak.

Zer-janaz kanpo, beste zerbait ere falta dabe arjentindarrek: askatasuna, demokrazia edo erkala.

Eta erkala-faltak..., odola, gaiztakeria eta zikin-keria dauz beti berekin. Ondo ikasia dau ori Ezkadi'k Espaiñi'ko militarren-pean.

* * *

Astero-astero biltzen dira Buenos Aires'en «Lo-reilleko Amak», «Las Madres de Mayo», beren seme aienatu edo «desaparezittuen» galdera Jaurlaritzari egiñaz.

30 milla dira «Aienatu» oiek. Arjentina'ko militarren lotsa dira, eta baita Arjentina'ko Elizarena ere.

Militarrek ez dabe erantzunik eman nai; Elizak ere ez dau itzegin nai. Mintzatu..., mintzatu izan da, baiña aulki, kemenik gabe, bildurrez. Eta Elizak gogor aurpegi eman bear dautso indartsuen eta aundikien pekatuari, batez ere pekatu ori Arjentina'koa bezain mardula danean.

Bizi diran edo ez diran iñork ere ez dakian 30 milla gizakumeek eta 30 milla gizakume oien amen eñazeak ez ote dau gotzai nagien arretarik merezi?

Ondotxo dakigu Euzkadi'n Elizaren ixiltasun ori kristauontzat zein mingarria dan. Zer egin zuan emen, euskal-apaizez landa, diktadurakoan, Elizak. Apaizek bakarrik, eusko-apaizek izan eben eliz-gizon-ek bear-bearrekoa daben artzai onaren kemena.

Orduando ixiltasun aren zitu mingotzak jasotzen ari da gaur Euzkadi'n Eliza.

LATIEGI'tar Bixente

KARLATARREN BIGARREN GUDEA

Gipuzkoa'ra urten-aldi bat egiteko gengozala, Bergara'tik Durango'rantz Serrano Gudalburua etorrela jakin genduan, Berak aginduriko gudalosteak iru gudari-talde eukazan.

Lenengo taldearena Gudalburu Akostak zuzendua. López de Letona Gudalburuaren menpean bigarrena. Eta irugarrena Leska Gudalburuak agindua.

* * *

Iru talde oneikaz aurkeztu baiño lenago, Villaro'tik Zeanuri'runtz bidean Bizkaiko, gudalosteak Mañaria'n jaso zana ez ekian ondiño. Zer jaso zan ba?

Duke de la Torre Baltzen buruzagiak Bizkaia'n sartutean bere gudalostea talde bitan banandu eban: Bata, Elgetatik jatsi, Elorrio'tik igaro, Durango'ko zelaietara eldu zana. Bestea, toki bertara Ermua-aldeetik eldurikoa.

Karlistak Liberalen aurrean egozala jakinda gitxiago izan

arren ta au jakiñik be, kemenez erabagi eben Mañaria'ko atxartetan arei arpegia emon ta gudaketan Baltzen aurka sartzea eurak.

* * *

Oneik ustebagez aurrekadan agertu yakezan. Alan be sartzea ez eben itzi eurrez aukeraturiko lekurik. Berazar'go mendian geratu ziran, bidearen eskumalkaldean. Gernika'ko batalloia, ta Gipuzko'tar Ayastuy'ek zuzenduak.

Karlatarrek gudatarako toki ohea euken, baiña ez antolabide edo erakunde bearrezkorik, ezta buruzagirik artezketa ta zuzenbide guztiak egiteko.

Liberalen gudalostea andiagoo izanez su'izkilluz ta ikaskizun geiagoz ornidurik egoan. Euren aurka topografia basatiago euken.

Eraso-aldi, burrukea asiteko zantsua emon eben. Gipuzkoa'ko Baltzak, izenez txapelgorriak, Urdanpilleta ospetsuak zuzenduta, Berazar mendian egozan kar-

lista bizkaitar ta gipuzkoarri oldarez ta indar kementsuz etorri yakezan.

Oneik ateraldiz arpegia emon eutsen atzerantz bein ta barrio eragiteraño.

Baiña zelan iraun eta jasan liberelek ba-euken guda-tresna tramunkulu geiago?

Ganera, mendi tontor txiki batetik, eskuma bide aldera bildurgarritzko kañoi-izkillu suaz ziarduen.

Orregaitik, Karlistarrek atzerapidea artu bear izan eben.

Durango'ko gudari-taldea, ain adoretzun gudakatzen izan zana, Inungana tontorrera igon zan.

Gernikarena arrisku andian geratu zan. Gipuzkoarrak beste aldera abiatu ziran.

* * *

Atzeraldi onetan Karlatarrek gudari geiago galdu bear izan eben, eurerariko zaurituak ezin arturik gañera.

Eta Karlista zauritu orreik txapelgorri liberal giputxek erail, garbitu zituen, ori ikusi eben ziñaldariak doñoenez.

Su-izkilluen ekiñaldiak iru ordu baiño geiago iraun eben, ta Liberal-baltzak ixildu arren, euren galtzeak be naiko ugari izango ziran.

Karlostarrenak, aitatu doguzan txapelgorriak erailduen gañera, bost ildako ta ogetamar zaurituak izan ziran.

Ildakoen arteko ospatsu bi izen-tauko doguz: Ayastuy kementsua, ta Altube'tar Manuel, Gernika'ko batalloian batzanduriko etxagun gazte, aberatsa.

Karlatarren Gernika'ko batalloia ta Ayastuy'ren nabaritu ziran.



DUDEA'KO MIKEL DEUNA.

(Continúa en pág. 15)

BERIATUA'KO

UR-BILLATZAILLEA

Nor da ur-billatzaile au?

Laka Bilbao'tar Joxe. Ona bere izenabizenak.

Berriatua errian dagon Bastolotza basetxe Erribera baserrikoa da Joxe Gastelu.

Idi-proben zale zar batek imiñi eutson izen-ordeagaz deituten deutsoe.

Orain illabete edo gure Joxe Gastelu Berango'ra joan zan, deitu eutsoelako uste dogu.

Eta deitu barik joan leitekean iñori kalterik egin ezik.

Ur-billatzaile au eldu zan ur barik egozan Azkorra ta Urrutia baserrietara ura aurkitu edo idoroteko.

Eta ur-billatzaileak giltzak atera zituan, ango lurraldetik ibillela.

Sundapena sartu egien toki bi izendatu ta eskuaz erakutsi ebazan.

Eta lurra zularutik sundapenak, urrikatuz gura izaniko ura agertu zan.



Gastelu'ko Jose, urbillatzailea.

* * *

Ez genkian gizon zar onek orrelango zentzumen eta sekulako soma-bideak eukazetik.

Eta ba-dakizue zelan agertu eban bere ur-bitzaile trebetasuna?

Arritu zeitekeze.

Bere berebilleko giltzak eskuetan erabiltzazala.

«Nik neuk ez nekian —diñosku— ura agertu-erazoteko arazorik, baiña iru bidar ekarri eben Berriatua'ra. Gipuzkoa'tik mutiloa ur-billatzailea. Eta egun baten bateren batek esan eustan.—I, txo, zegaitik euk be ez dok alegiñik egiten orretan. Ba-liteke euk ekitea giputx orrek beste trebetasan.

Barreka geratu nintzan. Baiña berebilleko giltzak artu nituan ta lur gañetarik asi nintzan ibiltan.

Beingoan zast! ikara lango bat eskuetatik burura igoten eustala somatu, igarri, neban eta nire buruan tok-tok egiten eustan.

Iñori esaten ausartu barik aldi luzean nenbillen.

Orain amarren bat urte, Berriatua'ko «Danok Bat» landetzean ur barik egozan, ta Joxe Gastelu'k nun aurkituko zan uraren tokia esan eutsen.

Atxurtu eben, ta amasei ta erdi neurkin lurpeko bean iturria idoro zan.

Ia beti igarten eban, itandu jakon, ta ezetz erantzun euskun zintzoro. Nozikpein ba-eukazala utsak batez be antxiñako odiak lurpetik zearkatu ta igaroten ba'ziran.

Atan be, Berriatuan ura gitxitu ta galtzen danean, ta ez ba'dakie nun ete dagozan odiak, bera (gure Joxe Gastelu) ibiltan da arein billa.

«Nik uste ona neukan neure ur-billatzailearen almenedo trebetasunean.

Orregaitik urte askotan nenbillen jardueraz, ekiñaldi zeregin onetan. Igaz ogei bidar deitu eusten orretarako, ta beti igarri ta aurkitu dot ura».

* * *

Idazlan onen egilleak ur-billatzaile praile bat ezagutzen dau.

Giputxe, Arretxabaleta'koa da.

Nortasun ta duintasun andiko gizona. Bein bere gaztaroan nagusi kaskamots ta buru gogor zital batek garratz agiraka egin ei-eutson ta berba zantar batzuk esan, errazoi barik; ta arek isil-isillik anka egin eban beste lekaidetxe batera.

Diñogun ur-bitzallaitze orren izen-abizena Jauregi'tar Simon da.

Orain Galizia'n dago, ta zarra izan arren bere trebetasuna ontzat artzen dabe zintzoa dalako. Galizia'tarrak guztiz ondo artzen dabe bere ur-brillatzaile lana, ta sarri askotan deitu be bai orretarako.

EGILUZE'k

X

GOPAREN-ABESTIA

²⁰Bedeinkatua Zeu, Jauna,
umezurtza bertan-beera itzi ez zendualako,

²¹beartsua be baztarrean itzi ez zendulako;
izan be, zure aal-izatea agortu-eziña da

²²eta zure aintza mugabagea.
Guadalari miragarriak dira zure morroiak
eta apalen erria zeure oiñazpia lez da.
Arekandik datorren gorapena atsegingarri yatzu.

²³Areik zuzentasun-ardurea dabe,
beartsu guztiak gora jasoten aalegintzen dira,
Zuk maite dozuzan beartsuak,
zapalkundetik askatzeko.
Orregaitik, ni guztien arerio biurtu naz,

²⁴nire lagun-urkoaren erantzungarri ta eztabai-
dagarri,
Itunpenean eskuartzan daben guztientzat
arretagarri ta sumingarri;
nire senitarte guztientzat
eta nire ogia jaten daben guztientzat
mormoxetagarri ta esamesgarri.

²⁵Neure aurka jaso dabe orpo-azurra.
Ezpan gaiztoz egiten dabe berba nitzaz
Alkertasunekoak ziran guzti areik.
Leen jarraitzen eusten gizonak eurak biurritu egin
dira.

²⁶Nire inguruan mormoxetan diardue,
Zuk nigan gorde dozun misterioagaitik.
Baltzitu egin dauste izen ona ondapen-semeen artean,
Zu nigan aundi agertzeko erea emonik.

²⁷Arein erruagaitik, ezkutatu egin zeutsezan
adimenaren iturria ta egiaren ezkutua.
Areik ondapena baiño ez erabillen euren biotzean.
Belial'en asmoak ausnartzen ebezan.

²⁸Miin guzurti bat askatu eben,
arantzen artean laratzen diran
suge-edena bustiteko.
Autsetan sua jaurtiten daben narraztiak lez dira;
suge txikiak lez:

²⁹onein aurka ez dabe sorginkeriak ezetako balio.
Ori [nigan] min osatu-ezin biurtu zan,
zauri galgarria zure morroiaren erraietan,
bere espirituari ia koloka eragiteraiño

³⁰eta indar guztiaz kentzeraiño.
Zutik be ezin egon naitekean.
Zauritu egin nenduen kale-zirkilluetan;
nire aurka etozanean ezin idoro neikan an babesik;
ez egoan an iges-tokirik.

³¹Nire atsekabeak zirala-ta,
arpa-otsean abestiak egin ebezan.
Ari-ereskiñez esan ebezan euren esamesak;
zarata ta poz-artean
atsegiña artzen eben nire atsekabe ta esturakaitik.

³²Seingintzan diarduan emakumea lez,
nire biotzat antzi egiten eban nire barruan.
Illeta-soiñekoak jantzi nebazan.
Nire miña ago-sabaiari itsasi yakon,
nire azurrak ausi egin ziran,
nire biotza auldu egin zan.

³³Samintasunez beterik banatu zan.
Nire dizdiza illunpe biurtu zan.
Baiña Zuk, ene Jaungoiko orrek,

³⁴nire biotza negurri bagarik nasaitu zenduan,
areik nire miña azken bagarik geitzea uste eben artean
eta ni illunpe astunetan sartzea aalegintzen ziran
artean
Nik nire ogia antzi-artean jaten neban,

³⁵malko azkenbageak ziran nire edaria.
Nire begiak tristuraz estaldu egin ziran;
nire arimea, samiñez egun oro,

³⁶miñak inguratu egin nau,
lotseak estaldu egiten dau nire aurpegia.
Nire ogia estualdi egin zan
eta nire edaria nire azurretaraiño sartzan dan
eztabaida,

³⁷nire espirituari koloka eragiteko ta nire kemena
ezerezteko.
Euren pekatuzko ezkutuari jarraiturik,
bardindu egiten dabez euren erruak Jaungoikoaren
egintzakaz.

³⁸Ezin ausi daitekezan sokaz izan nintzan lotua,
ezin zartatu daitekezan katez;
burdiñazko lokarriz eta brontzezko atez
babestutako arresi baten barruan sartuta.

³⁹Nire giltzapea leza azkenbagearen antzekoa da.

⁴⁰Belial'en lokarriak lotu egiten dabe nire arimea
urtenik ez dauan galmendiaz.

VI SORTA

1-2

[...] ³destaiñean ondatutako biotza,
azkeneraiño jaurtitako biurrikeriaren eskuetan,
triskantza errukibagean.

^{4a}Baiña Zuk, ene Jainko orrek,
zabaldu egin zenduan nire entzumena,
zuzentasuna irakasten dabenen arauz jotaku da-
gidan.

KEREXETA

(Viene de pág. 6)

artean zuen dilin dalanakaz euskal
erri dana poztuteko.

Gertu euskaldunok Zorundun
barri au abestiz ta txaloka goral-
duteko.

Poztu zerua, poztu eliza, poztu
Dima, poztu euskaldun erria seme
santu bat dozilako.

Aunditasunik aundiena, santu-
tasuna da.

Biurtu euskaldun enda gure ar-
basoen bideetara. Iñoiz bere ez
daitela esan euskaldunok geure
bide argia galdu dogula!

Domingo Iturrateren azurrak,
Algortaiko Kristo eroslearen eli-

zan bere anai irukaitzarrak ondo
baiño obeto zainduta dagoz. Mira-
ri aundiak egin dira bere bitartez.
Loretxu eskutuak argitara urten
dau. Poz ta zoriona gure biotze-
tan!!!

GALLASTEGI'tar Kauldi

(Viene de pág. 12)

Bizkai-Enkart-errikoak, bere
guduantze antolabide ezartzegai-
tik gorestea irabazi eban eta Du-
rango'koak bere ausardi gudari la-
gunen alegiñai mesede andia egin
outsolako.

* * *

Esan be esan beqr dogu
Liberal-Baltzak gudaketan ke-
mentsuz ziarduela, batez be bera-
rizko aitamena, omena irabaziko

eben gipuzkoar mikelete, txapel-
gorriak esan dogun euren gogor-
keria erdian egon ez ba'litz.

* * *

Diñogun guztia bere erantzuna-
ren lerro-aldi bategaz baieztuten
dau Baltzen Gudalburu Letona'k.
«Guda ekiñaldia lenengoetatik
alde bietan su-izkillu zalaparrada
ikaragarria zan.

Guda burrukea bata bestega
ganaña eldu zan. Arratseko zazpi-
rak inguruan su-izkilluaren zara-

tea amaituta, nire gudarien ta eu-
ren arteko zaurituen batzea eraba-
gi neban».

* * *

Gudaketa anen andaren nagu-
siena Amorebietako Ytunbena
gertatzea zala, iñoan. Pirola'k bai-
ña Karlatar ta Liberalen arteko
gudaldi onetzaz idazle onen oker-
kintzak agiriak dira.

LETONA'k

Abadeak eta politika

URSS-AITA SANTU

1982 urtearen azken-aldera Errusia'tik Vaticano'ra intzirika, Woytila Aita Santua politikan sartzen zalako, Burnizko Esiaren atzetik daudan Erri Komunisten kaltereko.

Vaticano'tik erantzuna legorra izan da: orrelakorik ez dagola ezer.

Piperragoak izan dira Italia'ko Alderdi Politikoen erantzunak, sozializtena bereiziki. Alderdi Komunista bera be ez da isilik geratu. Eta kontuan izan Europa osoan ez dagoela bera baiño Alderdi Komunista ugariagorik: Italia'koak ditu alderdikiderik gein. Berak be erantzuna emon deutso Errusia'.

* * *

Alderdi politikoetan jokatzeari beti izan da arrisku bat Elizentzako eta bere gotzai eta abadiantzako be. Euskaldunen artean be bai. Burruka zaleak ez izanda be, burruka artean ibilli gara beti: goitik Frantzia'ren eraso eta beetik Espainia'rena...

Beti auskia eta burrukea.

Kanpokoak asko ez dirala, barruan be mutur-jokea: Oñaz eta Ganboa, aundikiak eta erribilduak, karlistak eta liberalak, zurriak eta baltzak... Araba eta Naporroa Franco'rekin, Gipuzkoa eta Bizkaia aurka, gorriak eta urdiñak... eta iru kolorekoak.

* * *

Orain pake-bidea artuta gero, abertzaleak abertzaleen aurka, alkarren etsairik gogorrenek ba'lira lez. Anboto'ko Sorgiñaren mada-rikazioren bat badogu euskaldunok: etxe-barruan burrukea eta mutur-jokea darabilgun bitartean, kanpokoak guri noiz ederrak emoteko zai...

* * *

Eliz-gizonak bitartean, zer? Franco eta Godoen arteko praille historiagilleek beti ipiñi dabez euskaldunak salbaje utsak izan ba'lira bezela. Ez dabe esaten baiña, askatasun aldeko guda zala a, eta astakeri asko egin ebezala; baita jaso be. Onen berririk ez dabe emoten.

Karlisten denboretan abadeak agertzen dira gudari: el Cura Merino atzerritarren artean eta gure artean Santa Krus abadea... Franco'ren gerratean zer esanik bez. Gotzaietatik asita, Gomá kardena buru zutela... Apaizak ere reketé jantzita agertu zirean Gipuzkoa'n bere gudarosteekin batera. Gerran ez ebiltzenak be, sotana baltza eta buruan txapel gorria borla moraua zintzilika. Donosti kalean ikusita nago, kaputxino jantzita, falanjisten kapel ureiña buruan eta soldadu kapotea danen gaiñetik...

* * *

Karlistadan abadeak ibilli arren eta karlisten ikurriñak Foruak izendatu arren, eraso orretan bersolariak ez euken federik ez karlistekin eta ez abadiekin:

«Don Carlos ba'litz errege eta epaizak soldaduak, Euskalerriko Furuak laister lirake galduak...»

Don Carlos ez zan errege izan; alan be Furuak galduta gelditu ziran. Beti gu alde guztietatik, galtzen...

* * *

Denbora onetan, demokrazi aizeak jo dauanean, or dabilta zenbait abade eta praille gorri-gorri eginda. Franco'ren denboretan urdin-urdin egoazen aien antzera. Nok asma?

Arritzekoa da batez be Naporroa'n gertatu dana: kaki eta gorri agertu ziran amen ango abadeak; kaki-kolorea galdu dabe eta gorri gelditu dira, zuririk eta berderik artun barik. Naporroa ori eta gorri lotaratu zan; oria galdu dau berrogei urteko lozorroan; zuririk eta orlegirik artzeko itxaropenik bez... Orra, gorri.

Calvo Sotelo'k Donostia'ko Urumea frontoian, 1936'an, esandako itza, profezia gertatu da: «Antes roja, que rota».

ARRINDA'tar Anes

BIZKAIA'N BIZKAIERAZ

«Bizkai'ren ezaugarririk argiena, BIZKAIERIA da. Bizkaierea ukatzea Bizkaia ukatzea da, Bizkaitar izakerea ukatzea».

Luis Arostegi

(«Bizkaitarrok, Itzartu» idazlanetik artuta)

– Euskaldun ta euskotar guztiak ba'dakie edo jakin bear leukie Bizkai'ko euskera bakarra BIZKAIERIA dala ta, gizaldiz-gizaldi, beti izan dala. Orregaitik, BIZKAIERAREN aurka dagoana BIZKAIA'N aurka dago! Au argi dago!

– Bizkai'ko semeak BIZKAIEREA biurtzen gaitu bizkaitar... BIZKAIERIA galtzen ba'da, Bizkaia be galtzen da... BIZKAIERIA barik ez dago Bizkai'rik... Vizcaya izango litzake! Bizkaitarrok ba, biotz biotzez gure BIZKAIERIA maitatu bear dogu!

– Maitatu bear dogu gozoa, ederra, aberatsa, jatorra ta bear ba'da ezagutzen diran izkuntzetatik antxiñekoena dalako, baiña batez be MAITATU BEAR DOGU geurea dalako, bizkaitarren euskera bakar-bakarra dalako, gure arbasoak eta gure gurasoak itzi dauskuen ondoren bikaiñena, altxor andiena ta emaitz aberatsena! Bizkaitarrok, erabili beti zeuen ezpanetan!

– Bizkai'ko erriak, benetako bizkaitarrak, odolez bizkaitarrak garanok iñoiz be ez dogu onartuko BIZKAIERIA ez dan izkuntzarik! Ta BIZKAIERIA ilten bada, beragaz batera Bizkaia'n euskerea be ilko da! Ziur izan!

– Guraso bizkaitarrok: zelan itzi dozue Bizkai'ko Ikastola ta Ikast-etxe askotan zeuen seme-alabei irakatsi dagien zeuok egiten ez dozuen euskerea? Bearbada itxikeri ta nagikeriagaitik... Ernai egon ba, benetan ernai, datorren ikastaroan edo ikasturtean zeuen seme-alabei BIZKAIERAZ irakatsi dagien! Gurasoak, adi-adi egon! Zeuen eskuetan dago arazoa!

– Oraintsuko Bizkai'ko auteskunde-zabalkundean EAJ'k aurreko auteskundeetan baiño BIZKAIERIA geiago erabili dau, batez be idaztiñoetan... Gaiñera, BIZKAIERIA jatorra, alperreko H barik! Utsune batzuk izan dira, baiña alan da guzti be ZORIONAK! eta jarraitu Bizkaia'n BIZKAIERIA beti erabilten!

– Baita ZORIONAK! biotz-biotzez, Antxon Zubikarai'ri, Athletik Ereserkiaren abesitza benetako BIZKAIERAN –alperreko H barik– idatzi daualako... Ori da, Antxon, gure euskerea!

– Euskerarik erabiliñena BIZKAIERIA da, ta Euskal Ikustirratia'k baztertzen ba'dau edo daukan garrantzia ez ba'dautso emoten, zer egin, bizkaitarrak? Nora ezean, Bizkai'ko Ikustirratia edo Urrutirudizkiña sortzeko alegindu?


– Arritzekoa da, zelan bizkaitarrak ez diranak artzen dabezan erabagiak bizkaierearen buruz! Nok emon dautse eskubide ori? BIZKAIERIA Bizkai'ko erriarena da, bera da BIZKAIERAREN jaubea! Orregaitik, bizkaitarrak bakarrik daukie eskubidea BIZKAIERAREN buruz erabagiak artzeko! Zelan eta zenbat bidar esan bear dogu au?

– Bizkaitarrak! BIZKAIERIA zabaldu gura ba'dozue, «ZER» aldizkaria irakurri ta zabaldu' Kementsu ta gogo beroz'.

ZAR

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia